

# INGURUMENAREKIKO KONPROMISOA

Urte batzuetatik hona, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Gasteizko Atalean abian jarri ditugu ingurumenarekiko konpromisoari lotutako zenbait ekimen.

- Ildo horretan, gure atalak AMBILAMPekiko akordioari atxiki zaio. AMBILAMP irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, helburu nagusi duena lanpara eta luminarien hondakinen (TEEH deritzenen) bilketa eta tratamendua. Proiektu honi esker, modu jasangarrian biltzen dira lanpara fluoreszenteak, edozelako bonbillak, LED argiak etab., behin hondakin bihurtutakoan.
  - Paper hondakinatarako, eraikinean Beotibar enpresaren hainbat edukiontzi dauzkagu, hondakinok jaso eta birziklutzerara eramateko. Hondakin organiko eta plastikoatarako, berriz, hainbat edukiontzi berezitu dauzkagu atalean zehar banaturik.
  - Argiari dagokionez, energia aurrezteko konpromisoa betetzeko, mugimendu sentsoreak jarri ditugu beheko solairuko korridoreetan eta komunetan, eta lanparen ordez kontsumo gutxiko LED argiak jartzen gabiltza pixkanaka, bai espazio komunetan eta bai inbidualetan. Urtero LED argiak jartzen jarraituko dugu lehengo argien ordez, harik eta zahar guztiak LEDekin ordezkatu arte.
  - Energia gastua gutxitu eta orekatzeko, 2022an giltza termostatikoak jarri ditugu espazio inbidualetako berogailuetan, behar den bero emisioa kontrolatzen dutenak.
  - Hiriarekin politikarekin bat eginez, garraiobide publikoa eta jasangarria bultzatzearen aldeko hautua egin baitu, eta eraikinaren kanpoaldean bizikletan aparkalekuak dauzkagu, unibertsitateko kideak bizikleta erabiltzera bultzatzeko.
- ✚ Bestalde, gure instalazioetan "Garapen jasangarrirako helburuak" (GJH-2030 Agenda) agertzen dituzten panelak daude, haien inguruko kontzientziazioa areagotzeko.
- ✚ Ikuspegi akademikotik;
- ✚ GJHen ezagutza eta garapena modu transbertsanean sustatzen duten irakasgaiak gehitu ditugu.
  - ✚ Gainera, jasangarritasunaren arloko GRALak eta MALak bultzatzen eta zuzentzen ditugu, eta sari bat sortu dugu arlo horretako lanik honenei aitorpena egiteko.
  - ✚ Azpimarratzekoa dugu, halaber, gure irakasleetako batzuek parte hartzen dutela jasangarritasunari buruzko Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuetan.